

## DIRU ITURRIAK

Atal honetan dirua nondik lortuko dugunez hitz egingo dugu. Lehenik eta behin, gure diru-sarrera garrantzitsuena gure produktu nagusiaren salmenta izango da, non dirua sartzeko hainbat modu izango ditugu (PayPal, banku-transferentziak, txekak, hilabeteko kuotak...).

Gure etxeak alokatzeko aukera ere izango dute bezeroak, hainbat etxe eta leku desberdinetan alokatzeko aukerarekin, bere gustuetara.

Gure produktuaren prezioen estimu bat hau izango zen:

- Etxeen salmenta: 50.000€ unitateko.  
Prezio hau nahiko egokia dela iruditzen zaigu, kontuan izanda etxe hauen kalitatea eta ezaugarriak.
- Etxeen alokairua: 400€ hilabeteko.
- Etxeen erosteko aukerarekiko alokairua: aukera honekin, bezeroa gure produktua alokatu dezake eta hilabeteen ordaintzen duena, etxearen prezio finaletik deskontatu egingo zaio, eskuragarriagoa eginez bezeroaren ordainketa etxea erosi nahi izanez gero.

